

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Ibilgailuen errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2021eko errolda egin denez gero, errolda hori 15 egun jarriko da jendaurrean. Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Zerga norberaren borondatez ordaintzeko araututako epea 2021eko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoa (biak barne) izango da, eta martxoaren azken egunean kobratuko dira helbideraturiko ordainagiriak.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekarguarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2021eko otsailaren 12a

Alkatea

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA